

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

347

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 29koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria-rena, zenbait entitateri langileen prestakuntzarako laguntzak esleitzen dituen.

2020ko uztailaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazio enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duen ebazpena.

Halaber, 2020ko abenduaren 10ean argitaratu zen behin-behineko laguntzak esleitzen zituen ebazpena.

Behin planaren betearazpena justifikatzeko epea amaituta, eta aipatutako ebazpenean ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako laguntza hauek behin betiko ematea, aipatzen diren entitateetako prestakuntza finantzatzeko:

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO UDAL-ADMINISTRAZIOAK

Entitatea	Esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Andoingo Udala	4.484,50
Arrasateko Udala	14.350,00
Beasaingo Udala	8.395,40
Bermeoko Udala	2.989,70
Bilboko Udala	117.976,50
Debarrenako Mankomunitatea	852,00
Donostiako Udala	24.294,15
Durangoko Udala	2.504,02
Eibarreko Udala	8.734,78
Ermuako Udala	13.400,00
Errenteriako Udala	15.546,00
Getxoko Udala	5.687,79
Irungo Udala	17.495,13

2021eko urtarrilaren 22a, ostirala

Entitatea	Esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Laudioko Udala	2.164,00
Legazpiko Udala	8.609,00
Leioako Udala	3.656,00
Orozkoko Udala	182,50
Urnietako Udala	5.713,90
Vitoria-Gasteizeko Udala	7.284,66
Zallako Udala	502,50
Zigoitiako Udala	430,00
Guztira	265.252,53

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-ADMINISTRAZIOAK

Entitatea	Esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Arabako Foru Aldundia	31.782,98
Bizkaiko Foru Aldundia	109.623,14
Gipuzkoako Foru Aldundia	58.902,74
Guztira	200.308,86

Bigarrena.– Agintzea esleitutako behin betiko zenbatekoa baino gehiago jaso duten entitateei dagokien diru-kopurua itzultzeko izapideak hastea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikulua arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakiok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da jakinarazten den biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikulua esan bezala.

Hala ere, aldez aurretik, Erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da Ebazpena jakinarazten den biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabeteen erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, Administrazioarekiko Auzietako helegitea jartzeko epea, berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOiena IBARGUREN.